

# XEDAPEN OROKORRAK

## OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

### 965

*AGINDUA, 2020ko otsailaren 17koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, zeinaren bidez eguneratzen baitira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak.*

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du: «Lege honetan aurreikusitako zenbatekoak euro konstanteei dagozkie». Bada, Eusko Jaurlaritzan ogasunaren ardura duen Sailari dagokio zenbateko horiek eguneratzea, hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi eguneko epean, abenduaren 23ko 11/2015 Legeak emandako idazkeraren arabera.

Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egin denez, aurreko paragrafoan jasotzen den legezko manua bete egin behar da.

Azaldutakoa kontuan izanik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hauteskundeetako gastuei buruzko dirulaguntza publikoak izanik, honela geratzen dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 151. artikuluan jasotako zenbatekoak:

1.– 1. apartatuaren a) letrari dagokiona: hogeita zazpi mila bederatziehun eta hirurogeita sei euro eta hamazazpi zentimo (27.966,17).

2.– 1. apartatuaren b) letrari dagokiona: laurogeita hamalau zentimo (0,94).

3.– 1. apartatuaren c) letrari dagokiona: berrogeita sei mila seiehun eta hamar euro eta hogeita zazpi zentimo (46.610,27).

4.– 2. apartatuaren a) letrari dagokiona: hogeita lau zentimo (0,24).

Bigarrena.– Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako beste zenbateko guztiek, aurreko paragrafoan jasota ez daudenek, ehuneko ehun eta lau koma bosteko igoera izango dute (% 104,5).

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.